

Familia eta eskola arteko komunikazioaren onura

Adituei, familia eta eskola arteko komunikazioaren garrantziaz galdetzen diegunean, bi hezkuntza-eragile hauen arteko koedukazioaren beharra aipatzen dute. [Alaitz Etxaniz Aranzeta](#)ren hitzetan, (UPV-EHUko doktore aurreko ikerlaria), familia-eskola koedukazioak, erantzukizun partekatua eta lankidetzat sustatzen ditu. Betiere, bakoitzak haurraren heziketan duen funtzioa eta erantzukizuna bereganatuz eta bestearen funtzioa eta ekintzekiko errespetua adieraziz.



Bestela esanda, *“koedukazioa eskola eta familia sistemen artean suertatzen den sinergia da, haurraren elkarlanean aritzeko gai direnean garapena eta hezkuntza bultzatzeko duten indarra biderkatzen dutelarik, familia eta haurrentzat babes faktore bilakatuz eta irakasleentzat asebetetze iturri”*

Hainbat ikerketek berresten dute aurreko iritzia. Hargatik, nahitaez komunikazioaren garrantzia nabarmendu behar dugu. Familia eta eskola arteko koedukazioak, adin txikikoaren garapena sustatu eta adin txikikorekiko harremana errazten badu, ezinbesteko izango dugu komunikazioa. Beraz, gure arreta komunikazioan jarri beharko dugu, hala nola, zer eta nola komunikatzen dugun, zein oztopo aurkitzen ditugun komunikatzerako (egon badaude)...

Horrela, bada profesionalak kontutan izan beharreko zenbait gako familiekin duten komunikazioa hobetzeko:

- A. Ikasturtean zehar egingo den lanaz informatu
- B. Familiei buruzko informazioa jaso
- D. Familiaren hezkuntza eginkizunean konfiantza izan eta adierazi
- E. Segurtasunez eta errespetuz orientatu
- F. Aniztasuna errespetatu

Modu berean, familiek badute ere komunikazioa errazteko modurik:

- A. Hezitzaileek ikasturterako lehenetsi dutenarekiko interesa agertu, entzun eta entzundakoari alternatiba posibleak eskaini.
- B. Seme-alabekin lan egiten duten profesionalen informazioa akademikoa ezagutu.
- D. Hezitzailearen hezkuntza eginkizunean konfiantza izan eta adierazi
- E. Iradokizunak egin, seme-alaben egoerak bideratzen laguntzeko kritika konstruktiboa erabili.
- F. Aniztasuna errespetatu

Finean, ezinbestekoa da **jarrera positiboak** sustatzea. Entzuten jakiteak, besteak helarazi nahi diguna jasotzen lagunduko digu; horretarako gure igurikapen eta proiektzioak alde batera utzi behar ditugu. Zalantzan jarri gabe onartzeak, bestea, beste modu batean ikusteko aukera eskaintzen digu. Konfiantzaren bidez ikusi ahal izango dugu bai familia eta bai profesionalak baliabide nahikoak dauzkagula aurrean ditugun erronkei aurre egiteko, adin txikikoen onurarako.



Asko errepikatu eta teorizatutako gai izanik, urriaren 26ean, arratsaldeko 18:00etan, Berriatua udalerrian, **familia eta eskola arteko harremana adin txikikoen garapena errazteko bide izateko estrategia praktikoak bateratu eta garatuko ditugu.**

ETXADI. [0-18 urte bitarteko seme-alabak dituzten familientzako doako Orientazio Zerbitzua](#) Egin zure kontsulta telefono bidez: 94 405 15 49 (Asteazkenetan: 11:30etik 13:00etara eta 16:00etatik 17:30era) edo www.etxadi.org webgunean Lea-Artibaiko Amankomunazgoko inprimakia betez.